



Ipar Euskal Herrian, Melenchon bigarren

Ipar Euskal Herri mailan ere lehen atera da Emmanuel Macron, botoen %28,7 jasorik. Haatik, Frantziako Estatuan ez bezala, Jean-Luc Melenchon kokatu da bigarren, %18,26 eginik, eta hirugarren, berriz, eskuin muturreko Marine Le Pen –botoen %15,67 jasorik-. Bai, emaitza onak jaso ditu ezker muturreko Melenchonek, tartean, lehen kokatuz Hendaian eta Biriatuan, baita Nafarroa Behereko eta Zuberoako hainbat herritan ere (Lakarran, Arrosan, Izpuran, Alozen, eta abar). Izan Baiona, Angelu, Miarritze, Donibane-Garazi, Baigorri, Donapaleu ala Maule, hiri nagusietan nagusitu da orain arteko presidente Macron. Parte hartzea %77,69koa izan da Euskal Herrian, Frantziako Estatuoko parte hartze orokorrari alderatuz, hiru puntuz handiagoa.

Zentro-eskuineko Jean Lassallek egindako emaitza ere dago nabarmentzekoa: %11,61 jaso du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Frantziako Estatuoko emaitza orokorra ia laukoiztuz. Lapurdi kostaldetik urrundu eta mendi aldera sartu arau emaitzak are hobekatu dituzte hautagai biarnesak: lehen atera da Atharratzen (%28,29), Urepelen (%41,76), Lekunberrin (%25,60) zein beste herri ttipi anitzetan; eta bigarren zein hirugarren herri askotan. Azkenean, Frantziako Estatu mailan hiru alderdi ezberdindu baldin badira –Macron, Le Pen eta Melenchon–, Ipar Euskal Herrian laugarren bat gehitu zaie: Lassalle.

Bestelakoentzat, gutxiago ala gehiago, Frantziako Estatuoko joera bera sentitu da: hautagaitza historikoak izandako Alderdi Sozialista eta Les Republicanins eskuindarra ahuldurik atera dira –%2,05 ezker historikoarentzat eta %4,91 eskuin historikoarentzat-. 2017an eskuin historikoak %23,11 egin zuen Euskal Herrian, hots, sekulako porrota du aldi honetakoa. Hori horrela, lehen aldikoz, Le Pen kokatzen da orain lehen hiru indarren artean.

Eskuin muturrean zegoen bigarren hautagaitza Eric Zemmourek %6,93 egin du. Hots, Ipar Euskal Herri mailan %22ko sostengua du eskuin muturrak. Le Pen lehen indarra atera da hainbat herritan: Gixunen (Lapurdi), Bidaxunen (Nafarroa Beherea), eta Zuberoako Etxarrin, Xarrikotapean eta Lixozen.

Ekologistek emaitza apala jaso dute, nahiz eta Frantziako Estatu mailan ez bezala, %5aren langa sinbolikoa gainditu duen Yannick Jadotek.

Ikusteke dago orain bigarren itzulian nora joko duten lehen indarren artean kokaturiko Jean Lassallen eta Jean-Luc Melenchonen hautesleek. Hain zuzen, Lassallek ez du bozka konsignarik eman, eta ezker muturrekoak Le Penen alde ez bozkatzeko deia egin arren, ez du Macronen alde bozkatzera deitu. ●



“Gaullista naiz, ez ditut Batasun Nazionalaren hautagai Le Penen baloreak partekatzen. Hautesleak erabakimen askatasuna izanik, ez dut konsignarik ematen, baina pertsonalki Macron bozkatzeko dut apirilaren 24an”.

Max Brisson
senatari miarritzarra



“Hogei urte pasa eta gero, berriro ere. Oroz gainetik errepublikarra, Emmanuel Macronen alde bozkatzera deitzen dut. Aitzinamenduan dabilzan emakume eta gizonen batasunaren alde eta atzera egitearen aurka”.

Frederique Espagnac
Euskal Herriko senataria



“Ez daukat hauturik egin beharrik, ez dagoelako hautatuko nukeen aukerarik. Ez da espero nuen buruz burukoa izango, eta funtsean, frantsesek gogoz kontra hautaturiko buruz burukoa daukagu hor”.

Jean Lassalle
hautagaia eta Biarnoko diputatua